

Inorenak ote dira?

SARRERA: ANE GARCIA LOPEZ

POEMAK: HARKAITZ CANO, ANE ZUBELDIA ETA NAHIA ZUBELDIA

Sarrera

Dagoeneko inork gutxi uka lezake poesia edo literatura itzultzeko norbere sormenaren putzua ustiatu beharra dagoela, itzultzaileak beretik asko ematen diola jatorrizko testuari, eta, ezinbestean, eraldatu egiten duela. Ematen ote diogu espaziorik, baina, itzultzailearen sormenak utzitako arrasto horri? Balioesten ote dugu itzultzaileak testu bati egiten dion ekarpen pertsonal eta propioa? Edo arrasto agerikoak akastzat jotzen ditugu? Zer gertatuko litzateke presiorik gabe itzuliko bagenu? Gure fidelotasuna neurtzen ibili behar ez bagenu? Zer gertatuko litzateke poesia itzultzeko *carte blanche* emango baligute? Izan al daiteke poesia-itzulpena jolas edo gozamen huts? Galdera horiek eta beste asko planteatu, eta hona hemen gogoeta horren haritik sortutako proposamen

bat. Ez du inolako erantzunik emateko asmorik.

Ariketa honetan, hiru idazleri poema bana eskatu eta *ménage à trois* itzul-poetiko (eta baimendu) bat osatzea izan da asmoa: nor bere jatorrizko poema besteen esku utzi, eta besteenak bereganatu ditu. Itzulpen-kate txiki bat sortu dute horrela, transkreatzioaren oinarrietatik abiatuta. Kontzeptu hori ezagun ez baduzue, hona hemen definizio posible bat: «“Transcreation” can be defined as a translation-related activity that combines processes of linguistic translation, cultural adaptation and (re-) creation or creative re-interpretation of certain parts of a text».¹

Hala, jarraian, hiru edo bederatzi poema irakurriko dituzue, Euskal Herrian ofizialak diren hizkuntzetan: eskuz esku ibili diren hiru poemaren hiruna aldaera. Nahia

1. «Transkreatzioa itzulpenarekin lotura duen jarduera bat da, zeinean konbinatzen baitira itzulpen linguistikoa, moldaketa kulturala eta testuaren zati batzuk berregitea edo haien berrinterpretazio sortzailea». (Geure itzulpena; ikus bibliografia)

Zubeldia, Harkaitz Cano eta Ane Zubeldia aritu dira transkreatzaile-lanetan, nor bere txoko, hizkuntza propio eta kultura partikularretik. Gorago azaldu bezala, itzulpenkate bat osatu dute hirurek: poema bat sortu eta beste bi itzuli ditu haietako bakoitzak; itzulpeni dagokienez, lehenik, jatorrizkotik erdarara ekarri du bakoitzak beste baten poema (gaztelaniara edo frantsesera), eta, gero, poema itzuli hori euskarara itzuli du berriz beste batek. Eta gauza bera egin dute

hiru poemekin Hau da, hiru poemak esku guztietatik pasatu dira.

Jarraian aurkituko dituzun testuak joan-etorrian ibili dira, eta esango nuke joan-etorri horretan hasieran egilearekin zuten lotura galdu dutela, pixkanaka aldentzen joan direla, hegaldi librean, hodei-mulkoan barrena. Behin eta berriz itzultzen den testu bat ez baita inorena, ezpada hura ukitu, hunkitu eta goxatu duten esku guztiena.

I. poema:

Hodei tapiza badoa

Hodei tapiza badoa
nola paisaia autoko leihotik
lau geruzako tipula desinkronizatua.

Udaberriak itoko duen hegia
gaur, urtarrila, hutsik dago.

Larhun gailur elurtua ihespuntu
Santa Barbaran etzanik nago
zazpi kilo maitasun bularrean loturik
haize hotzaren hotzean, epel.

«Isiltasuna triste da»,
bi txistuz amilotxak.
«Eta eder»,
lur zanpatuegitik jalgi den belar izpi bakarrak.

«Triste da isiltasuna»,
etxe handieneko leiho hetsiak,
urteko hogeigarren egun hutsetik.
«Eta eder»,
nagiak ateraz,
hondar setiatua berreskuratu duen itsasoak.

Zazpi kiloak zazpi tona dira: lo zare.

Egilea: NZ

El manto de nubes se aleja

El manto de nubes se aleja
como un paisaje
que la ventana del coche deja marchar;
cuatro capas
a destiempo.

En este día de enero,
el horizonte anhelante
yace vacío.

Estoy tumbada en Santa Barbara
mi mirada se fuga a la cima nevada de Larrun
tengo siete kilos de amor anudados al pecho,
cálidos
ante el aire más libre y frío.

El herrerillo silba dos veces
para ahuyentar la tristeza del silencio.
Una única brizna de hierba se alza
para reclamar su belleza.

«El silencio está triste»,
anuncian las ventanas cerradas de las casas grandes:
el vigésimo día del mes viene con las manos vacías.
«Y bello»,
recuerda el mar desperezándose
en su indecisa conquista de la arena.

Siete kilos son siete toneladas: duermes.

Badoa urrun hodei mulkoa

Badoa urrun hodei mulkoa,
autoko leihatilak axolagabe
ihes egiten uzten dion paisaia;
desgaraiko
geruza sorta.

Urtarrileko egun honetan
hutsik datza
horizontearen irrika.

Santa Barbaran etzanda
—Larrungo gailur elurturantz begira—,
zazpi kilo maitasun dauzkat bular-korapilo,
epelago
aske datorkeen haize hotza baino.

Amilotxaren txistu bikoitzak
uxatu du isiltasun goibela.
Belar izpi bakarrak dagi
bere edertasunaren aldarri.

«Triste dago isiltasuna»,
iragarri dute etxe handietako leiho itxiek:
esku-hutsik dator hilaren hogeia.
«Ederra ere bai»,
zehaztu du nagiak askatuz itsasoak
harearen konkista zalantzatian.

Zazpi tona diren zazpi kilo:
lo zaude.

II. poema:

Baina zer txori

Txori gintezke,
baina zer txori, bada?
Arrano, mika, sorbeltz, enara?
Baxutik doa eta orbita herrena
da gure hegada.
Zerbaitetan izatekotan haien antz postura,
akaso moko nimiñoz makur errekek edan guran?
Txitoei jaten eman, galderak pausa,
erakuts eta seinala arriskuak: *Hau, Hori, Hura...*
Gure lana hor bukatu da.

Hileta batean izan naiz bart:
mikatza zen garagardoaren aparra
eta tenplutik at, eliza ondoko tabernan
edaten geratu nintzen, atzaparrak bizitzari atxikiak,
loro zahar bat bere kakoan nola.

Urrun usteko irlara heldu gabe,
lokatz gertuko zirrara.
Urreari errefus baina,
nahimenez zilarra.
Irisenez labur, borondatez nomada,
asfaltoan ahul, zeruan saldo beharra:
luma busti, hegaldi kamuts,
ttipiago bihurtzeko era da iparra.
Arrazoia emateko nire modua? Dardara.
Prest nago aitortzeko eta agian hala da:
txori bagintezke, txori gara.

Egilea: HC

Un oiseau, mais lequel

Nous pourrions être oiseau,
nous pourrions en être un, mais lequel ?
Un aigle, une pie, un martinet, une hirondelle ?
Il boîte autour de son orbite, au ras du sol
notre vol.
Si nous leur ressemblons,
c'est en posture courbée, assoiffés, plongeant dans la rivière notre bec étriqué.
Nourrir les poussins qui demandent pourquoi,
leur montrer les risques du doigt : *fais pas ci, fais pas ça...*
Notre travail s'arrête là.

Hier j'ai mis un proche en bière :
elle avait la mousse amère
à l'issue du temple, dans ce bar près de l'église
où j'ai bu, agriffée à la vie,
telle un vieux perroquet sur son crochu crochet.

L'île présumée lointaine hors d'accès,
je savoure la vase d'à côté.
Je refuse l'or ardemment
mais je désire l'argent.
Courte de portée, nomade par volonté,
désarmée sur l'asphalte, la foule des cieux m'exalte :
la plume détrempée, le vol usé,
si je veux me hisser, c'est pour rapetisser.
J'ai ma façon d'approuver : frissonner.
Je pourrais le dire tout haut, ce n'est sans doute pas faux :
nous pourrions être oiseau, oui, nous sommes oiseau.

Txori bat, baina zein

Txori izan gintezke,
izan gintezke txori, baina zein?
Arranoa, lapurtxoria, sorbeltza, enara?
Lurra ukitzen du ia
gure hegaldiaren orbita herrenak.
Haien antza hartzen dugu soilik
mokoa ibaian estu hondoratzean, makur.
Zergati-gose diren txitak elikatu,
eta hatzaz erakusten diegu arriskua: ez egin hau, ez egin hura...
Horraino heltzen da gure lana.

Zerraldo bat ikusi nuen bart, hurre:
tenplutik ateratzerakoan, elizatik gertu zegoen tabernan
samina zen aparra eta
bizitzari helduta edan nuen,
loro moko-oker zaharrak nola.

Ustez urrun den irla begi bistan,
alboko lohia dasta.
Sutsuki egiten diot uko urreari,
baina desio dut zilarra.
Irismenez eskas, borondatezko nomada,
asfaltoan babesgabe, zeru amaigabeak zirrara:
lumak ur, hegaldia huts,
goraldia nahi dut, bihurtzeko ezdeus.
Arrazoia emateko dar-dar egiten dut.
Aski ozen esan nezake, eta gezurra ere ez litzake, hara:
izan gintezke txori, bai, txori bagara.

III. poema:

I don't believe in an interventionist god

Nik ez dut behar jainkorik
sekula
salbu
galtzen dudanean belarritako bat

galera ñimiño horren aurrean
aldiro
nahi dut
jainko bat
minaren tamaina berekoa:
izaki txiki bat
ikusezina, samurra
belarrira xuxurlatuko didana
zehazki
non galdu nuen
zehazki
noiz galdu nuen
zehazki
nola galdu nuen

jainko horrek
deskribatuko lidake
nola zanpatu zuten nire belarritakoa auto baten gurpilek
nola irentsi zuten xurgagailu batek eta hustu zuten zaborrontzi batera
nola herdoiltzen ari den milaka zatitxotan hiru zabortegitan

Bai,
nahikoa litzateke hori.
Uste dut
horrek arinduko lidakeela beste guztia.

Egilea: AZ

I don't believe in an interventionist god

No necesito dios alguno
nunca
excepto
cuando pierdo un pendiente

ante tal insignificante pérdida
deseo
cada vez
tener un dios
equivalente a ese dolor:
un pequeño ser
invisible y tierno
que me susurre al oído
dónde lo perdí
exactamente
cuándo
exactamente

ese dios
me explicará más tarde
cómo aplastaron mi pendiente las ruedas de un camión
cómo fue succionado y vertido a la basura por una aspiradora
cómo se oxida en tres vertederos y en mil pedazos.

Hasta ahí me sirve.

Creo que eso
aliviaría todo lo demás.

I don't believe in an interventionist god

Ez dut jainkorik batere behar
sekula ez
salbu
belarritako bat galtzen dudalarik

hain galera ezdeusaren aitzinean
aldi guziz
nahi dut
jainko bat ukan
min horren parekoa:
izaki ttipi bat
ikusezin eta samurra
belarrira xuxurlatuko lidakeena
non galdu nuen
xuxen
noiz
xuxen

jainko hark
berantago azalduko lidake
nola lehertu zuten ene belarritakoa kamioi baten gurpilek
nola irentsi zuen eta zikinetara bota aspiragailu batek
nola oxidatzen ari den hiru hondakindegitan eta mila puskatan.

Horraino bai balio zait.

Fida naiz horrek
gainerateko guzia eztituko lukeela.

BIBLIOGRAFIA

DÍAZ-MILLÓN, Mar eta OLVERA-LOBO, María Dolores (2023). «Towards a definition of transcreation: a systematic literature review», *Perspectives*, 31:2, 347-364.

Resumen

Este artículo contiene un juego de traducción o transcreación: cada uno/a de los/as tres autores/as ha propuesto un poema original, y, después, ha traducido los poemas del resto, en un intercambio literario, sirviéndose de las bases de la transcreación. Precisamente, además de tomar en cuenta la traducción puramente lingüística, la definición de la transcreación pone el foco en la reinterpretación y la recreación del texto que el/la traductor/a podría realizar. De esa manera, los textos que circulan libremente se alejan de su fuente y labran caminos inesperados.

Résumé

Dans cet article on présente un jeu de traduction ou de transcréation : chacun-e des trois auteur·rice·s-traducteur·rice·s a proposé un poème original, puis a traduit les poèmes des autres dans un échange littéraire basé sur la transcréation. C'est-à-dire qu'outre la traduction purement linguistique, la transcréation se concentre également sur la réinterprétation et la récréation du texte que le-la traducteur·rice pourrait réaliser. Ainsi, les textes qui circulent librement de traducteur·rice à traducteur·rice s'éloignent de la source et ouvrent des voies inattendues.

Abstract

This article involves a game of translation or transcreation: each of three author/translators provided an original poem and then translated the works of the other two in a literary exchange based on transcreation. The definition of transcreation not only includes purely linguistic translation, but also underscores the reinterpretation and re-creation of the text that the translator may choose to do. The texts, which travel freely from hand to hand, thus move away from their source and forge unexpected paths.